

KBIZ

beaz magazine

1. Zk



Calvera Hydrogen Innovation

Bizkaiko hidrogenoaren
enpresa-ekosistemari
ezagutza eta berrikuntza
ematen


Bromalgae

Zientzia, jasangarritasuna
eta berrikuntza airearen
kalitatea hobetzeko
eta bioteknologiarekin
ekonomia zirkularra
sustatzeko



Bloodhounds Hydrogen Systems

Industria-segurtasuna
hobetzea gailu adimendun
eta hari gabekoen bidez



EDITORIALA

K **KBIZ**ren 1. zenbaki honetan, **BEAZ**ek Bizkaiko ekintzailtza-ekosistema baliozkotu nahi du lurraldeak berrikuntzarekin, jasangarritasunarekin eta teknologia aurreratuarekin duen konpromisoa islatzen duten hiru ekimenen bitartez: **Calvera Hydrogen Innovation**, **Bromalgae** eta **BloodHound Hydrogen Systems (BHS)**.

Calvera Hydrogen Innovation Design Kabin BEAZen co-working espazioan hasi zen martxan eta laguntza erabakigarria jaso zuten bertan garatzeko. Gaur egun **Bizkaiko Teknologia Parkeko Abantoko Campusean** kokatuta daude eta presio handiko irtenbide teknologikoak bultzatzen dituzte hidrogeno berdea garraiatzeko eta gordetzeko eta **Hidrogenoaren Euskal Igarobidearen** helburu estrategikoekin lerrotatuta daude.

Bromalgae BIC Bizkaia Ezkerraldea inkubagailuan kokatuta dago. Ikuspegi bioteknologiko berritzailea du eta mikroalgak erabiltzen dituzte kutsatzaile atmosferikoak harrapatzeko eta balio erantsi handiko konposatuak sortzeko. Ekonomia zirkularreko ereduak eta diziplina anitzeko taldeak **Bizkaiak** industria-jasangarritasunaren erreferente gisa duen rola indartzen dute.

Deustuko Unibertsitatearen **Deusto Kabi** inkubagailuan **BloodHound Hydrogen Systemsek (BHS)** gasak detektatzeko —besteak beste, hidrogenoa— hariarik gabeko teknologia garatzen du, sektore estrategikoen segurtasuna hobetuz. Proposamen moldakor eta patentatu batekin, enpresa gazte horrek erakusten du **Bizkaian** posible dela irtenbide lehiakorrek sortzea munduko industria-erronketarako.



Informazio gehiago
nahi izanez gero,
mesedez ikusi

beaz.bizkaia.eus

Aurkituko gaituzu:



Sabino Arana, 8
48013 Bilbao
Tel.: 944 395 622

beaz@bizkaia.eus

KBIZ

AURKIBIDEA

04

Calvera Hydrogen Innovation

Bizkaian hidrogeno berdearen iraultza sustatzen.

10

Bromalgae

Zientzia, jasangarritasuna eta berrikuntza konbinatzen ditu bi erronka gako jorratzeko.

16

BHS: BloodHound Hydrogen Systems

Helburu handizalearekin sortu zen: industria-segurtasuna hobetzea.

**Erredakzioa
eta Argazkia**
Mikeldi Donibane

Inprimaketa
Gráficas Uncilla

Argitaratzailea
Beaz

Copyrighta
© KBIZ, 2025.
**Eskubide guztiak
erreserbatuta.**



Calvera

Hydrogen Innovation

Bizkaian hidrogeno berdearen iraultza sustatzen

Calvera Hydrogen Innovation, S.L. eragile erabakigarri gisa sortu da Bizkaiko hidrogenoaren enpresa-ekosisteman. Espezializatutako enpresa honek irtenbide aurreratuak eta egokituak ematen ditu presio handiko ekipamenduan hidrogeno berdea garraiatzeko, gordetzeko, banatzeko eta deposituak betetzeko. Helburua argia da: deskarbonizazio-bidean, asmo handiko Bizkaiko eta Euskadiko zero isuriaren helburua lortzen laguntzea.

“Konpainia funtsezko elementua da Bizkaiko hidrogeno berdearen balio-katean. Izan ere, sektore garrantzitsuetan aplikatzea errazten du, adibidez, mugikortasunean eta elektrifikatu ezin diren eta energia-mendekotasun handia duten industrietan. Bere eginkizuna oso garrantzitsua da, hidrogeno berdearen ekoizpena eta azken erabilera konektatzen dituen eragile katalizatzea baita”, komentatu du **Nieves Murillo Hernandezek / Head of R&D&i - Bizkaia Center.**

ARAGOITIK BIZKAIRA: PROIEKTU ESTRATEGIKO BAT SORTU DA

Proiektua **Grupo Calvera**ren ekimenez sortu zen **Calvera Hydrogen SA** matrizearen bitartez Hidrogenoaren Euskal Igarobidean (**Basque Hydrogen Corridor BH2C**) parte hartu zutenean. Grupo Calverak 40 urte baino gehiagoko esperientzia du presio handiko hidrogeno-ekipoen ingeniarietan eta fabrikazioan eta Bizkaian enpresa berria ezartzea erabaki zuten, eskualdeko baldintza

“KATE-MAILA ERABAKIGARRIA IZATEA EUSKADIN H₂ BERDEAREN BALIO-KATEA OSORIK GARATZEKO”

sozioekonomiko paregabeak
aprobetxatuz.

Bi urtez **Design Kabin**
(**BEAZ**eko coworking-
espazioan) egon eta
gero, **Calvera Hydrogen**
Innovationek aurrerapauso
handia eman du eta **Egoitza**
Nagusian – Edith Clarke
del Energy Intelligence
Centerren (EIC), finkatu
da, **Abantoko Campusean,**
Bizkaiko Teknologia
Parkearen barnean.

**EUSKAL EKINTZAIETZA-
EKOSISTEMAREN BALIOA**
“**Design Kabin** (BEAZeko
co-working espazioan) egon
ginenean, laguntza osoa jaso
genuen enpresa ezartzeko
eta hazteko. **BEAZ**eko

*lantaldeak arlo askotan
lagundu gaitu: hala nola
administrazio-laguntza eta
talentua erakartzeko tresnak
eskuragarri jarri dizkigute,
adibidez, **BizkaïTalent**”,
baieztatu du **Nieves Murillo**
Hernandezek.*

*“Konpainiak azpimarratu
du Bizkaia energia-proiektu
berriak garatzeko leku oso
egokia dela, ekosistema
ekonomiko irmoa baitu,
balio-kate osoko eragileen
arteko lankidetzan
oinarritutakoa. Euskal
lurraldea testuinguru
ezin hobea da eta
Zero-Net ekonomiak
eta balio erantsi handiko
teknologiak industria-*

*sektorea deskarbonizazio
jasangarrirantz bultzatzen
ari dira”.*

**ETORKIZUNeko
EKINTZAILEENTZAKO
GOMENDIOA**

Calvera Hydrogen
Innovationek Bizkaian
proiektu berriak martxan
jartzen ari direnei





gomendatzen die konfiantza osoa izan dezatela

BEAZeko lantaldean, eta oztoporik gabe partekatu ditzatela beren beharrak eta zalantzak. Beren esperientziak frogatzen du talde horrek irtenbide zuzenak ematen dituela eta horrelakorik eman ezin



CALVERA HYDROGEN INNOVATION

Abantoko Campusa

Edith Clarke eraikina
Serantes Bidea 1, 1. solairua
48500 ABANTO-ZIERBENA (Bizkaia)



*Informazio gehiago
hemen aurki dezakezu:*



dutenean, egoera bakoitza konpontzeko erakunde edo pertsona egokira bideratzeko gai direla.

HURRENGO PAUSOAK: FINKATZEA ETA HAZTEA

Enpresaren egungo helburua **Abantoko Campusean** eta **Hidrogenoaren Euskal Igarobidean** duen presentzia sendotzea da. Egungo planen artean hauek daude:

- Talentua erakarriz hazten jarraitzea, junior talentua barne, unibertsitateekin eta prestakuntza-zentroekin

lankidetzan.

- I+G enpresarialeko proiektua finkatzea, teknologia aurreratuko irtenbideak garatzean oinarrituz.
- Euskadiko hidrogeno berdearen enpresa-ekosistamarako neurria egindako produktuak diseinatzea eta nazioarteko proiektioa indartzea.
- Hidrogenoaren balio-katearen maila guztietan lankidetzaren sarea ezartzea.
- Hidrogeno berdearen

ekoizpenaren eta erabileraren arteko elementu azeleratzaile gisa jardutea, presio handiko produktu teknologikoak sortuz.

Calvera Hydrogen

Innovationek frogatzen du enpresa-ekimen estrategikoak gai direla euskal ekosisteman inguru ezin hobea bilatu, gora egin eta etorkizun jasangarriago baterako energia-trantsizioan laguntzeko.



**“SEKTORE BERRI BATEAN
(HIDROGENOAREN
EKONOMIAN) ENPLEGU
ESPEZIALIZATUA
SORTZEA”**

Bromalgae

Bioteknologia berdea etorkizuna garbiagoa izan dadin

Bromalgae 2018an Bizkaian sortutako teknologia-enpresa bat da. Mikroalgak aliatu estrategiko bihurtu dituzte kutsaduraren aurka borrokatzeko eta balio erantsi handiko konposatuak sortzeko. Proiektuak zientzia, jasangarritasuna eta berrikuntza konbinatzen ditu bi erronka gako jorratzeko: airearen kalitatea hobetzea eta bioteknologiarekin ekonomia zirkularra sustatzea.

“Hasiera-hasieratik gure apustua mikroalgen bitartez CO₂ eta NO₂ harrapatzea ahalbidetzen duten sistemak garatzea izan da eta, horrela, kutsatzaile horiek biomasa erabilgarri bihurtzen dira. Aldi berean, pigmentu naturalak, gantz-azido funtsezkoak eta bestelako metabolito bioaktiboak ateratzeko ikerketa-lerroak martxan jarri ditugu eta sektore nutrazeutikoan, kosmetikoan eta farmazeutikoan aplikatzen dira” dio **Teresa García Bárcena**k, proiektuaren zuzendari zientifikoak.

DIZIPLINA ANITZEKO TALDEA ESPEZIALIZAZIO-MAILA HANDIAREKIN

Sortzaileek, **Guillermo Barredo Gallarzak** eta **Juan José Otamendi Aguadok**, ikuspegi estrategikoa eta esperientzia ematen dituzte industria- eta ingurumen-kudeaketan.

Zuzendaritza exekutiboaren burua **Julen Alonso Hornes** da. Ingeniari industrial eta CEOa da eta berak gidatzen ditu industria-inguruetako irtenbide bioteknologikoak. Zuzendaritza zientifikoa **Teresa García Bárcena**k egiten du. Biokimikan eta biologia molekularrean doktorea da eta hamar urte baino gehiagoko esperientzia du bioekonomiari aplikatutako mikroalgak aztertzen. Biak ere **Bromalgae**ko bazkideak dira.

Taldea osatzen dute profil gakoak dituzten hauek: **Paula Roldán Prieto**, kultiboak optimizatzen espezializatuta dagoen biologoa, eta **Uxue Núñez Larrauri**, prozesuen eskalagarritasunean zentratzen den ingeniari kimikoa. Beraiekin batera lan egiten du **Erlantz Estévez** laborategiko teknikariak, eta esperimentu-euskarriaren arduraduna da. Guztien artean talde



gaztea, paritarioa eta oso kualifikatua osatzen dute eta, horrela, **Bromalgae** bere arloan erreferentea da.

IKUSPEGI BERRITZAILEA BENETAKO INPAKTUAREKIN

Bromalgaeren proposamen berezia hiru lerro nagusitan egituratzen da:

- **Balio handiko biokonposatuak ekoiztea:** substantzia espezifikoak lortzen saiatzen dira —

adibidez, **astaxantina**, **fucoxantina**, **EPA** edo **DHA**— zeintzuek etekin ekonomiko handiak eta industria-aplikazio zabalak eskaintzen dituzten. Biomasa-bolumena besterik bilatzen ez duten ereduaren aurrean, Bromalgae kalitatearen eta espezializazioaren alde egiten du.

- **Kultibo-erreaktore automatizatuak**

diseinatzea eta


fabrikatzea: errendimendua maximizatzeko eta industria-eskalagarritasuna errazteko optimizatuta daude. Sistema horiek barnean garatzen dira, betiko sistemak baino efizienteagoak dira eta ikerketa-zentroetarako, unibertsitateetarako edo oinarri teknologikoko enpresetarako pentsatuta daude.



BROMALGAE

BIC Bizkaia Ezkerraldea

Altos Hornos de Bizkaia hiribidea 33
C3 modulua
48901 BARAKALDO (Bizkaia)



Informazio gehiago
hemen aurki dezakezu:

“BIC Bizkaia Ezkerraldea inkubagailua ezinbestekoa izan da Bromalgaeren hazkundean”

• **Atmosfera kutsatzaileak harrapatzea.** Sortu duten **Garbiar** teknologiarekin CO₂ eta NO₂ gutxitzen dira hirietan eta industria-inguruetan, eta merkatuan txertatzen hasi dira lizitazio publikoen eta lankidetzaren bitartez.

FINKATZE- ETA HEDAPEN-FASEA

Enpresa garapen-fase erabakigarrian dago. Ekoizpen-

instalazioa sortzen ari dira eta bertan askotariko mikroalga-espezieekin esperimentuak egiten dituzte eta industria-baldintzekin biokonposatuak sortzeko prozesuen eskalagarritasunean lan egiten dute.

Aldi berean, kultibo-erreaktore propioak merkaturatzen hasi dira eta garapen berrietan aurrera doaz; adibidez, **Fibi-Móvil** bioiragazketako

sistema eramangarria da portu-inguruetan erabiltzeko eta **Ports 4.0** deialdian aurkeztu zuten. Proiektu horrek teknologia hirietako eta itsasoko ingurumen-kudeaketan aplikatzeko aukera berriak sortzen ditu.

BERRIKUNTZA SUSTATZEN DUEN EKOSISTEMA: BIC EZKERRALDEA

“BIC Bizkaia Ezkerraldea inkubagailua ezinbestekoa



izan da **Bromalgaeren** hazkundera. Inguru honetan kokatuta egonik, taldeak bulegoa eta tailerra konbinatzen dituen espazio hibridoa eskuragarri izan du eta horrela errazagoa da laborategietan eta ekoizpen-arloetan batera lan egitea. Hurbiltasun hori ezinbestekoa izan da prototipoak, probak eta prozesuen eskalatuak azkar garatzeko” dio **Teresa García Bárcenak**.

Espazio fisikoaz gain, inkubagailuak adituen aholkularitza eskaintzen du

finantzaketa-proposamenak prestatzeko, proiektu estrategikoetan parte hartzeko eta enpresa ikusgarriago egiten duten ekimenetan egoteko. Laguntza hori funtsezkoa izan da **Bromalgaek** bere berrikuntza-lerroak finkatu ahal izateko eta merkatu-balioa duten produktu bihurtzeko.

“Beste faktore **garrantzitsu bat kontaktu publiko eta pribatuez osatutako sarea** izan da. **BIC Bizkaia Ezkerraldearen** bitartekaritza eskertu, erakundeekin, bezero

potentzialekin eta bazkide estrategikoekin konektatu ahal izan dugu eta kolaborazio- eta hedapen-aukerak zabaldu zaizkigu” dio **Teresa García Bárcenak**.

Azken finean, **Bromalgaek** indartsu doa aurrera Bizkaiko ekosistema bioteknologikoaren eragile emergente gisa. Gure apustua irtenbide garbiak, errentagarriak eta teknologikoki aurreratuak dira, eredu ekonomiko jasangarriago bati laguntzen diotenak.

INBERTSIO TXANDAK



Eskaerak aurkezteko epea:

Eskaerak: 2025/07/15 - 2025/09/19

Inbertsio-txandetan trebatzea talde ekintzaileen gaitasunak sendotzeko diseinatutako zerbitzu integrala da, eta horretarako dauden finantzaketa pribatuen iturri ezberdinei buruzko ezagutza sakona eskuratzea ahalbidetzen du. Gainera, prozesu honek inbertitzaileei sarbidea errazten die eta inbertsioaren munduko eragile nagusi hauetatik bereizteko plataforma bat eskaintzen die.

Zerbitzu honen helburua Bizkaian kokatutako startup-en hazkundeari eta iraunkortasunari laguntzea da, finantzaketa-bilaketa arrakastaz lortzeko beharrezko tresnak eskainiz.

Lagunduko dizugu:



Gida “Finantzaketa txanda: prest al dago nire startup-a?”



Zure startup-a arrakastaz finantzatzeko funtsezko alderdietan trebatzea.



Bizkaia Inbertsio Foroa funtsezko ekitaldia da, eta aukera ematen dizu zure balio-proposamena aurkezteko Euskadin eta estatu mailan jarduten duten inbertitzaileei, Family Office, Business Angels eta Kapital Funtz Publiko eta Pribatuei.

Norentzat?

Zerbitzu hau Bizkaian kokatutako startup berritzaileei zuzenduta dago, hazkunde-erronkei aurre egin eta finantzaketa-iturri berriak txertatu nahi dituztenei.

Noiz?

Trebakuntza 5 modulutan banatuko da, eta iraila eta urria bitartean emango da..

Non?

BEAZen instalazioetan, Sabino Arana 8, 48013 Bilbo.

beaz@bizkaia.eus





BHS Bloodhounds *Hydrogen Systems*

BHS: Bizkaiko teknologia hidrogeno-jarioak eta bestelako gas-jarioak detektatzeko

BloodHound Hydrogen Systems (BHS) enpresa teknologiko gaztea da eta **Deustuko Unibertsitateko DEUSTO KABI** inkubagailuaren barneko ekintzailtza-ekosistemaren parte da. Asmo handiko helburua du: industria-segurtasuna hobetzea gailu adimendunak eta haririk gabekoak garatuz, gas-jarioak detektatzeko gai direnak, besteak beste, hidrogenoarenak eta gas naturalarenak.

Energia-trantsizioaren testuinguruan eta hidrogeno-azpiegiturak hazten doazen heinean, proposamena eskari handiko hobi estrategikoan kokatzen da.

Ekimena **Hidrogenoaren Euskal Igarobidean** sortu zen: sortzaileak gabezia larria zegoela ikusi zuen, ez baitzegoen irtenbide eraginkorrik hidrogeno-jarioak monitorizatzeko. “Aztertzen ari ziren aukerak oso oinarritzkoak ziren”, azaldu du **Daniel Delgado**k. Une horretan, segurtasun-estandar zorrotzenen inguruan pentsatu zuen, adibidez, **NASA**k **Safety**

Standard for Hydrogen and Hydrogen Systems agiri tekniko luzean definitu zituenak. Bertan, irtenbide optimoak lehenesten dira gutxieneko onargarrien aurrean. “Hidrogenoa gas iheskorra eta oso delikatu da. Segurtasunik gabe aurrera egiten bada, hondamendiren bat gerta daiteke”, ohartarazi du.



ERABILERA ANITZEKO GAILUA, HARIRIK GABEA ETA MOLDAKORRA

BHSren proposamenak ikuspegi integrala du. Gailu trinkoa da eta unitate bakarren presiorako eta barne-tenperaturarako sentsoreak ditu, baita ere gasak, hezetasuna eta kanpo-temperatura detektatzen duen

giro-sistema bat ere. Aurreko guztia, haririk gabe transmititzeko gaitasunarekin. Horrela, kableatu konplexuak ez dira beharrezkoak, instalazioa azkarra da eta ez da mekanizazio osagarri behar. *“Zuzenean betiko manometro bat ordezkatu dezake”,* dio Danielek.

Diseinu praktikoa izateaz gain, sistema moldakorra da: hasierako helburua hidrogenoa zen arren, gaur egun hamar gas baino gehiago identifikatzeko gai da eta industria-sektore askotan erabili daiteke. Patentearen bidez babestuta dagoenez, bere teknologiaren balio estrategikoa indartu da eta merkatuan lehiakorrek dira.



BLOODHOUNDS HYDROGEN SYSTEMS

Deusto Kabi

Simón Bolívar 19
eskuineko lokala
48010 BILBAO (Bizkaia)



Informazio gehiago
hemen aurki dezakezu:

FUNTSEZKO LAGUNTZA DEUSTO KABIN

BHsk DEUSTO KABIn

inguru ezin hobe izan du bere proposamena garatzeko. "Hasieratik lagundu gintuzten eta gure proposamenean interesa duten enprekin kontaktuan jarri gintuzten", esan du fundatzaileak. Erakundeen babesa eta industriako

aliatu potentzialekin konexioak ezartzeko aukerak ezinbestekoak izan dira bilakaeran.

ITXAROPEN ARGIAK ETA HURRENGO PAUSOAK

Gaur egun, taldea gailuaren lehen bertsio operatiboa bukatzen ari da. Enpresek interes argia dute, sektore korporazio handiek barne. Hala ere, produktua

homologatzea da erronka nagusia gaur egun. "Oso-osorik bukatuta eta ziurtatuta egotea eskatzen digute. Horretan ari gara lanean buru-belarri gaur egun", baieztatu du Danielek.

Epe motzerako itxaropenak argi daude: sistema inguru errealean baliozkotzea,



*“Gaur egun
hamar gas baino
gehiago detektatu
ditzakegu”*

ziurtapen-prozesuak bukatzea eta jasotako feedbackarekin hobekuntzak ezartzea. Aldi berean, **BHS** lankidetzaren estrategikoen sarea handitu eta ingurua prestatu nahi du etorkizunean teknologia hobetzeko finantzaketa-erronda egiteko.

Proposamen irmoarekin, berrikuntza babesten duen patentearekin eta industria-behar gorakorarekin, **BHS** eragile emergentea da industria-gasen segurtasunean eta kontrolean. Argi erakusten du toki-berrikuntzak irtenbide globalak sor ditzakeela.

DIRU-LAGUNTZEN MAPA



Finantzaketa lortzeko eta enpresen hazkundera suspertzeko jardunaldia
25/06/2025

Jardunaldi hauek ekintzaileei, Startupeei eta ETEei zuzenduta daude. Jarduera industrialetan, industriarekin lotutako zerbitzuetan, garraioan edo handizkako merkataritzan aritzen direnak, eta berrikuntza-, hazkundera eta nazioartekotze-proiektuak garatzen dituzten eremu horietan. Topaketa dinamikoak dira, eta erakunde parte-hartzaileekin benetako hurbilketa bat ezartzea dute helburu, haiekin banakako kontraste-saioak izateko aukera ematen bait zaie.

9:30 Irekiera instituzionala

9:40 CDTI – Juan Luis Romera

- I+G rako deialdi irekiak: I+G proiektuak, Cervera proiektuak I+G
- Enpresa-berrikuntzarako laguntzak
- Enpresa-ekintzailtza: NEOTEC
- Hurrengo deialdiak

10:00 ENISA – Carolina Rodríguez

- ETE berritzaileentzako finantzaketa
- Proiektu bideragarriak eta berritzaileak dituzten ETEentzako partaidetza-mailuak
- Lerro Ekintzaile Digitalak, Agrolnnpulso eta Industria Kultural eta Sortzaileak
- Gorabidean dauden enpresen ziurtagiria, Startupen Legearen esparruan

10:25 OGASUNA (BFA) – Aitor Chicote

- 64bis artikulua (Sozietateen gaineko Zergaren Foru Araua): ikerketa eta garapenerako edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzeari buruzkoa.

10:50 Galderak

11:15 Atsedena

11:30 Banakako saioak

Izen-emateak: Ekainaren 21era arte zabalik. Entzulegoaren edukiera osatuz gero, Beazek eskubidea izango du izena emandakoei bertaratzeko formatu gehigarriak eskaintzeko .

Non? Beaz Auditorioa (Sabino Arana 8. Bilbao)

beaz@bizkaia.eus



	AcceXible Impacto @acceXible.com ☎ +34 678 580 399
	AgriX Eco @agrixlabs.com ☎ +34 627 553 533
	AOTECH @aotech.es ☎ +34 621 004 487
	ASIMOB @asimob.es
	Auziker @auziker.com ☎ +34 617 279 254
	AvanzaBio @avanzabio.com ☎ +34 946 859 616
	Batterie Ingenieure @batterieingenieure.de ☎ +34 944 351 819
	Berritzea @berritzea.com ☎ +34 946 472 497
	Bidagua @bidagua.es ☎ +34 669 625 327
	Bikaine @bikaine.com ☎ +34 638 273 753
	Biocomputing @biocomputing.es ☎ +34 678 408 654
	Blue Connecting Emotions @bluece.eu
	Bromalgae @bromalgae.com ☎ +34 688 773 432
	Carnegie Clean Energy @carnegiece.com ☎ +34 946 953 089
	Ceata @ceataingnieria.com ☎ +34 946 291 183
	Cibersare @cibersare.com ☎ +34 944 580 462
	Citystock @citystock.es
	Clean Fintech @cleanfintech.io ☎ +34 680 901 066
	Cloudtainer @cloudtainer.eu
	Coometas @coometas.com ☎ +34 613 306 221
	Delicium ☎ +34 665 864 695
	Drone by Drone @dronebydrone.com ☎ +34 637 521 158
	Editorial ON @editorialon.es ☎ +34 744 404 641
	Egoki @egoki.eus ☎ +34 688 841 123
	El Mono @uxuecastrillo.com ☎ +34 665 999 858
	Elektrart @elektrart.com ☎ +34 647 391 171
	Envitec Biogas Iberia @envitec-biogas.com ☎ +34 672 006 363
	Eraberrri Fisioterapia @eraberrifisioterapia.com ☎ +34 689 590 330
	Esame Biomedical @esamebiomedical.com ☎ +34 630 086 300
	Exom Engineering @exomengineering.com ☎ +34 623 108 883
	FLF - From Lab to Field @fromlabtofield.com ☎ +34 603 817 078
	Fuelium @fuelium.tech ☎ +34 644 914 445
	Giideba @giideba.com ☎ +34 613 288 465
	Glycoscience @glycoscience.es ☎ +34 946 068 283

	Grovals @grovals.com ☎ +34 614 235 487
	Gura @gurathedrop.com ☎ +34 659 246 463
	Hawk Biosystems @hawkbiosystems.com ☎ +34 946 40 55 20
	House of Soiree @basque.soir.ee ☎ +34 645 176 709
	IkerData @ikerdata.com ☎ +34 688 800 057
	Innitius @innitius.com ☎ +34 944 987 052
	Innomy Labs @innomylabs.com ☎ +34 944 049 792
	Insekt Label @insektlabel.com
	Investiga Salud @investigasalud.com ☎ +34 646 259 459
	Ipsum Solutions @ipsumes.com ☎ +34 688 692 326
	Itsas Bio Design ☎ +34 646 972 368
	Jimm Monitoring @jimmonitoring.com ☎ +34 699 060 766
	Kuvu @kuvu.eu ☎ +34 944 580 877
	Labsland Experimentia @labsland.com
	Lipiwell @lipiwell.com ☎ +34 629 475 207
	Lou Ingenieria @louingenieria.es ☎ +34 660 088 872
	M55 ☎ +34 629 074 118
	Mai CDMO @mai-cdm.com ☎ +34 688 609 934
	Mezuticcs @mezuticcs.es ☎ +34 600 560 426
	Mikrobiomik @mikrobiomik.net ☎ +34 944 540 166
	Msolutions ☎ +34 690 256 347
	Mugikon @mugikon.com ☎ +34 605 761 158
	Neucurrent @neucurrent.com ☎ +34 659 390 864
	Nitid @nitid.ai ☎ +34 609 907 500
	Novargi @novargi.com ☎ +34 688 728 562
	Phebus @phebus.es ☎ +34 674 706 804
	Plataforma 50 @plataforma50.net ☎ +34 656 320 661
	Profesiolan @profesiolan.com ☎ +34 688 647 670
	Quest Implants @questimplants.com ☎ +34 946 672 165
	Roiward @roiward.io ☎ +34 659 786 212
	Roseo @roseo.es ☎ +34 623 366 769
	Saluta Bizkaia @saluta.org ☎ +34 669 234 919
	Samylabs @samylabs.com ☎ +34 687 549 979
	Samira DTX ☎ +34 663 843 390

	Senstile @senstile.com ☎ +34 655 205 404
	Serenior @serenior.company.site ☎ +34 678 958 708
	Sisu Bienestar ☎ +34 666 212 854
	Smart To Walk @smarttowalk.com ☎ +34 747 450 919
	Solargic @solargic.net ☎ +34 615 926 488
	Sorbaitech @sorbaitech.com ☎ +34 688 806 412
	Spouted Bed Solutions @sbsprocess.com ☎ +34 673 851 511
	Sua Solutions @mundopua.com ☎ +34 649 998 614
	Syngoi Technologies @syngoi.com ☎ +34 946 096 309
	Tawity @tawity.com ☎ +34 688 869 047
	TAD @theartofdiscoverysl.com ☎ +34 946 941 421
	Trodexa @trodexa.com ☎ +34 616 869 760
	Tubacex Innovación @tubacex.com ☎ +34 943 719 300
	Tubacex Upstream Technologies @tubacex.com ☎ +34 943 719 301
	Universal Omics @universal-omics.com ☎ +34 667 174 329
	Universo Marziano @marzianos.com ☎ +34 695 046 292
	Vamos a Cuidarnos @vamosacuidarnos.org/ ☎ +34 629 060 549
	Ventijet ☎ +34 667 008 105
	Vitrocaulis @vitrocaulis.es
	Volta Control @controledificacion.com ☎ +34 659 895 727
	Vrainhax @vrainhax.es ☎ +34 657 735 637
	Weco Art @wecoart.com ☎ +34 623 369 734
	Welltech @welltechelectronics.com ☎ +34 944 353 129
	Yuit @yuit.eu ☎ +34 747 476 394
	Yoid @yoid.es ☎ +34 647 365 147
	Zenialabs @zenialabs.com
	Carbon Zero @zerocs.eu
	Zinnia Ediciones @zinniaediciones.com ☎ +34 644 524 673
	Zirkular Basq @basqcompany.com ☎ +34 644 357 690